


DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (eusquera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 1 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

6. ORDENANTZA

EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA


AURKIBIDEA:

I. Xedapen orokorrak 1 eta 2 artikulua
II. Zerga egitatea 3tik 5era artikulua
III. Salbuespenak 6 artikulua
IV. Subjektu pasiboak 7 artikulua
V. Zerga kuota 8 artikulua
VI. Beherapen hobariak 9 eta 10 artikulua
VII. Zergaren aldia eta sortzapena 11 artikulua
VIII. Kudeaketa 12tik 16ra artikulua
IX. Azken xedapen
6. ZERGA ORDENANTZAREN ERANSKINA
I. Laudioko kale-izendegia
II. Azken xedapena

6. ZERGA ORDENANTZA

Azken aldaketa Udalbatzak 2019/07/29 eguneko osoko bikura erabakiz
 Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2019/09/04 eguneko 102 zk.an
 Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2019/10/17
 Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2019/10/28 eguneko 125 zk.an
 Indarrean sartu: 2020/01/01

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 2 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360687 UCAEM-XWHSF-SY8MV 797A6F816689521D412A5E3EA1D24150B77A7AB) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=2&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

6. ORDENANTZA

EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Laudio Herriko Etxeak honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat eta uztailearen 19ko 43/1989 Foru Arauekin bat, erabaki eta ebatzi du exijitzea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, zeinen parte osagarria den alboan doan Eranskina zeinek baitu Laudioko kaletegia eta bere kaleen kategorien sailkapena.

2. Artikulua.

Ordenantza hau Laudioko udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. Artikulua.

1.- Ekonomi Jardueri buruzko Zergaren egitatea Laudio udal mugartean burutzen diren enpresa, lanbide edo arte jarduerak osatzen dute, kontutan hartu gabe toki jakin batean egiten diren eta zergaren tarifetan zehazturik dauden ala ez.

2.- Zerga honen ondoretarako enpresa jardueratzat hartuko dira abeltzaintza, norbere kontura egiten denean, meatzaritza, industri, merkataritza eta zerbitzuetako jarduerak. Beraz, nekazaritza, norbere konturako abeltzaintza, baso eta arrantza jarduerak ez dira enpresa jardueratzat hartuko eta ez da sortuko zerga egitaterik horietan jarduteagatik.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondoretarako, norbere kontura egiten den abeltzaintzatzat hartuko da hurrengo kasuotakoren batean dagoen abelburu taldea:

- Azienda, abere edo ganaduaren jabeak, abeltzaintza, nekazaritza edo basogintzarako ustiatzen ez dituen lurretan bazkatzen duena.
- Landa finketatik kanpoko kortetan hazitakoa.
- Larreaz, barrutiz edo lekuz aldatzen dena.
- Finkatik kanpo ekoizten diren pentsuez elikatzen dena

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 3 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Ludio/Llodio
(Araba)
www.ludio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

3.- Enpresa, lanbide edo arte jardueratzat hartuko dira ekoizteko bideak eta giza baliabideak, edo horietako bat, norbere kontura antolatzen direnean, ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzeko asmoz.

4.- Zerga eta kargapean hartutako jardueren edukia Arabako Foru Aldundiak horretarako onartuko dituen zergaren tarifetan azalduko da.

4. Artikulua.

Zergapeturiko jarduerak burutzen direla frogatzeko, zuzenbidean onargarri den edozein bide eta modutan eta, bereziki, Merkataritza Kodeko 3. Artikulua ezarritakoak erabiliko dira.

5. Artikulua.

Hurrengo jarduerak ez dira zerga honetako zerga egitatetzat hartuko:

- Nekazaritzakoak, menpekotasunezko abelazkuntzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak.
- Enpresetako aktibo finkoko ondasunen besterenganatzea, baldin eta ondasun horiek besterenganatu baino bi urte lehenago aktibo ibilgetu gisa ageri izan badira inbentarioan; eta saltzaileak berak erabiltzen zituen ondasunen salmenta, baldin eta ondasun horiek denboraldi berean erabili izan baditu.
- Norbanakoen lanak edo lanbide zerbitzuak ordaintzeko jasotzen diren gaien salmenta.
- Estabezimendua apaintzeko erabiltzen diren gaiak erakustea. Aitzitik, zergapean egongo dira bezeroei oparitzeko diren gaien erakusketa.
- Eragiketa edo ekintza bakanen bat burutzea, txikizkako salmenta denean.

III. SALBUESPENAK

6. Artikulua.


1.- Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, Estatuko Erakunde Autonomoak eta baita Lurralde Administrazio horietako izaera bereko zuzenbide publikoaren arlokoak diren erakundeak ere.
- Subjektu pasiboek euren jarduera burutzen eta eragiketan hasi direnetik jarduera garatzen den lehen eta aurreneko bi urteetan zerga honetatik salbuetsita geratuko dira.

Ondorio horietarako, jarduera ekonomiko baten jarduera-hasiera ez da gertatuzat joko ondorengo kasu hauetan:

- Jarduera hori aldeztatik beste titulartasun baten menpean gauza bada, eta hala joko da gertatu dela, besteak beste jarduera arlo horretako batze, banatze eta gehitze kasuetan.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 4 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

2) Subjektu pasiboak Merkataritza Kodeko 42. artikularen arabeko sozietate taldeko kide den subjektu pasiboa denean, salbu eta alde zaurerik taldea osatzen duten enpresen arteko batek berak ere ez garatu ez duen jardun berria denean.

3) Jardun bera garatu duten enpresek % 25 baino partaidetza handiagoa dutenean.

c) 1.000.000,00 de euro baino gutxiagoko eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu behar dutenei dagokienez, egoitza iraunkorra dutenei baino ez zaie aplikatuko salbuespena, betiere, 1.000.000,00 euro baino gutxiagoko eragiketa-bolumena badute.

Edonola ere, salbuespena aplikatzeko nahitaezko betekizuna izango da letra honetan jasotako eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresek subjektu pasiboetan ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik ez izatea, ez bada abenduaren 13ko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauaren 77. Artikuluan aipatzen diren arrisku-kapitaleko sozietateak edo funtsak, partaidetza aipatutako funts edo sozietateen helburu soziala betetzearen ondoriozkoa denean.

Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzeari dagokionez, arau hauek hartuko dira kontuan:

Lehen.- Sozietateen Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 5. artikularen 1 idatzi-zatian xedatutakoari jarraikiz zehaztuko da eragiketa-bolumena.

Bigarrena.- Pertsona fisikoen gaineko zergaren, sozietateen zergaren edo ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboen kasuan, aitorpenak aurkezteko epea zerga honen sortzapena gertatzen den urtearen aurreko urtean bukatua duen zergapetze aldikoa izango da eragiketa-bolumena.

Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikuluko 3. idatzi-zatiak aipatutako sozietate zibil eta erakunde kasuan, zerga hau sortzapena gertatzen den urtearen aurreko azken aurreko urteari dagokiona izango da eragiketa-bolumena.

Zergapetze aldi horrek urte naturala baino gutxiago iraun badu, eragiketa-bolumena urtekora igoko da.


Hirugarrena.- Subjektu pasiboaren eragiketa-bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak egindako eragiketen multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea sozietate talde baten parte denean, Merkataritza Kodeko 42. artikularekin bat, lehen adierazitako magnitudeak taldearen barruan dauden erakunde multzoarenak izango dira.

Laugarrena.- Ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren kasuan, Espainiako lurraldean dituzten egoitza finkoen multzoaren eragiketa-bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte Segurantzak kudeatzen duten erakundeak eta indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera osatu diren mutualitate eta montepioak.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 5 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360687 UCAEM-XWHSF-SY8MV 797A6F8166B96521D412A5E3EA1D24150B77A7AB) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=29&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

e) Ikerketako erakunde publikoak, Estatua, Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia edo Toki Erakundeetako fondo oso-osorik kostatutako maila guztietako irakaskuntza zentroak, edo ongintzako edo herriaren onurako aitormena jaso duten Fundazioak eta irabazi asmorik gabeko maila guztietako irakaskuntza zentroak, hezkuntzako hitzarmenaren araubidekoak, are euren ikasleei idaztegi artikulu edo liburuak ematen badituzte edo ostatu erdi edo barnetegiko zerbitzuak eskaintzen badituzte, nahiz eta salbuespeneko izaeraz zentroan bertan irakaskuntza horretan jarduten duten tailerretako produktuak saldu, beti eta horien salmentaren zenbatekoa, norbanako baten edo hirugarren pertsona batentzako inolako erabilerarik gabe, xederatzen bada, guztiz eta oso-osorik, zentroaren sostengurako edo lehengaiak eskuratzeko.

f) Urritu fisiko eta psikikoen eta sentimenezkoen, irabaz asmorik gabek, elbarrien irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta zaintzarako egiten dituzten jarduera pedagogiko eta zientifikoengatik eta laguntzarako eta lanbiderako jarduerengatik, nahiz eta helburu horietarako tailerretako gaiak saldu, eta beti ere salmentaren dirua soilik lehengaiak erosteko edo establezimendua mantentzeko, eta ez norbanakoen edo gainontzekoen erabilpenerako, erabiltzen bada.

g) Gurutze Gorria eta araudi bitartez balioz kidegarri izan daitezkeen beste erakunde batzuk.

h) Indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu ahal zaien subjektu pasiboak.

2. Aurreko ataleko a), d), g) eta h) letretan aipatutako subjektu pasiboak ez dute zerga honetako matrikulan altako aitoren aurkeztu beharrik izango.

3. Aurreko 1. Ataleko c) letran aurreikusitako salbuespena aplikatzeko kasu eta suposatutak Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Diputatuak zehaztu eta xedatuko ditu. Salbuespena eduki nahi bada Arabako Foru Aldundiari zuzendutako idatzia aurkeztu beharko da, bertan jasota eta adierazita utziz salbuespenaren aplikaziorako letra horretan xedatutako betebeharrak betetzen direla.

Ondore horietarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Diputatuak zehaztu eta xedatuko du idatzi hori aurkezteko edukia, epea eta forma, hala nola zein kasutan aurkeztu beharko den bide telematikoz.

Aurreko 1. Ataleko c) letran aurreikusitako salbuespenean eragina izan dezaketen aldaketei dagokienean, Zerga Ordenantza honetako 13. Artikuluko 2. Ataleko hirugarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat jardungo da.


4. Artikulu honetako 1. Ataleko e) eta f) letretan aurreikusitako salbuespenek alde aurretik eskatu beharko dira eta, hala dagokionean, interesdunaren eskaera tarteko dela emango dira.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

7. Artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak, baita testamentu ahalordea edo botere osoko gozamina erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta zerga honen zerga egitatea sortzen duten jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egiten badira.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 6 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

Testamentu ahalordea edo botere osoko gozamina erabili gabe duten herentzietan dagokionez, jarduera ekonomikoak egiten direla ulertuko da, alde batera utzita azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak 24. artikuluan 1. idatzi-zatien ezarritako betebeharrak ez betetzea.

V. ZERGA KUOTA

8. Artikulua.

Uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu arauemaile bidez onetsitako zerga honen indarrean dauden tarifak, eta Laudio Udalak erabakitako koefiziente, indize eta hobariak aplikatu ondoren aterako da zergako kuota, ondorengo arauen arabera:

1. Araua:

Zerga tarifetan finkatu diren gutxiengo kuotekiko, igoera bakarrek koefizientea aplikatuko da Laudio udalerrian burututako jarduera guztietan, 2,03ean ezarrita geratu dena.

2. Araua:

1. Aurreko artikuluan xedatutako koefizientearen aplikazioz gehitutako kuoten gainean aplikatu da ondorengo atalean seinatzen diren indizeak, establezimendua fisikoki kokatuta dagoen enplazamendua Laudioko udal barrutiko kalearen kategoriaren arabera.

2. Ondorengo indize hauek aplikatuko dira:

KALEAREN KATEGORIA	INDIZEA
1ª	1
2ª	0,95
3ª	0,91
4ª	0,86

3. Ordenantza honen eranskinean udalerriko kaleategiaren sailkapena dago, duten kategoria ezberdinen arabera. Aipatu den sailkapen horretan bide edo kaleren baten izena agertzen ez bada, aplikatu beharreko indizea izango da bide horrekiko gurutzatzen den kale edo bideen artean handiena duen kalearena, eta horrelakorik ez badago, izena agertu ez den kale honen ingurukoena.


4. Latorro auzoko kaleen indizea gutxituta egongo da % 15.

VI. BEHERAPEN HOBARIAK

9. Artikulua.

Zergaren kuotak % 50eko hobaria eduki ahal izango du baldin eta betetzen badira honako kasu eta baldintzak hauek:

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 7 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udal <small>Firmado 18/12/2020 12:58</small> 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udal <small>Firmado 18/12/2020 14:07</small>	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

- 1.- Enplegu Toki Ekimeneko Proiektuen babesean dagoen Enpresa.
 - 2.- 25 urtez beherako gazteentzako zein 25 urtez gorako pertsonentzako, langabezian urtebete baino gehiago daramatenean enplegu autonomoa sortzen duten enpresak direnean.
 - 3.- Zergaren kuotan % 50eko hobaria lortu ahal izango dute txikikazko salmentako denden titularrek, denda txikidunek, eta antzerakoek Merkataritza Eraberritzeko Proiektu Bereziak indarra duen bitartean udalerrian jarduera berriren bati ekiten badiote, behin proiektu berezi hori onartua izan ondoren, eta Proiektu Berezi hori indarrean dagoen bitartean lizentzia lortu ondorengo hiru urteko epealdian zehar.
 - 4.- Zerga honen % 50 hobaria eta onura lor dezakete energia berriztagarrien edo kogenerazio sistemen aprobetxamendurako instalazioetatik oinarrituta energia sortzen edo erabiltzen duten subjektu pasiboek.
- Ondorio horietarako, energia berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak direla kontsideratu dira energia berriztagarriak sustatzeko Planean halakotzak aurreikusitakoak eta difinututakoak.
- Kogenerazio sistemak kontsideratuko dira elektraindarraren eta energia termiko erabilgarriaren produkzio bateratua ahalbideratzen duten ekipoak eta instalazioak.

10. Artikulua.

Hobariaren onura jaso nahi duten eskatzaileek ondorengo betebeharrak bete behar dituzte:


- 1.- Jarduera hasiera izango da eta udal zergaren kuotarik txikienagatik tributazioa.
- 2.- Jarduera ekonomiko hori ezin izango da aurretiaz jardundakoa izan beste baten jabetzapean.
- 3.- Aldez aurretik beste jabetzapean jarduera ekonomiko moduan burutua izan dela ulertuko da, besteak beste, bategite, bereizte edo jarduera-egitateko adarren baten gehitzeagatik.
- 4.- Egoera guztietan, hobaria lortzeko, aldez aurretiko eskaera egin beharko da.
- 5.- 9. Artikuluko 1. eta 2. puntuetako hobariak udalak ematen dituenetik hasita 3 urteko iraupena izango dute eta jarduera, derrigorrean, mantendu behar izango da 3 urte horietako epearen barruan. Osterantzean, onuradunak jaso dituen hobariak bueltatu behar izango ditu.

VII. ZERGAREN ALDIA ETA SORTZAPENA

11. Artikulua.

- 1.- Zergaldia egutegiko urtearekin bat etorriko da, alta adierazpena izan ezik, horretarako jarduera hasi denetik egutegiko urtea amaitu arte hartuko da kontuan, artikuluko honetako hurrengo 3. zenbakia xedatutakoaren kalterik gabe.
- 2.- Zergaldiaren lehenengo egunean sortzen da zerga eta kuotak txikiezinak izango dira, alta adierazpen kasu batzuetan izan ezik, jarduera hasi den eguna egutegiko urtearekin bat ez datorrenean, horrela izanik kuotak

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 8 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Audioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Audioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

urtea amaitzeko falta diren egutegi egunekiko proportzioan kalkulatu dira, jardueraren hasieratik abenduaren 31 arte.

3.- Baja adierazpen eta aitopen idazkietan, zergaldia urtarrileko lehen egunetik hasi eta baja eguna artekoa izango da. Kasu horretan, zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da eta kuota kalkulatu da urtarilaren lehen egunetik eta baja eguna arte igarotako hilabete kopuruarekiko proportzioan.

Aurreko 3 zenbakian aipatu den hilabete kopurua zehaztearen ondoretarako, hilabete oso legez zenbatuko da baja aitopena aurkezten den hilabete hori.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da ezargarria izango baldin eta jarduera hasi den data eta baja aitopen data artean 12 hilabete igaro ez badira. Horrelakoetan, baja data legez hartuko da baja aitopena aurkezten den urteko abenduaren 31.

4.- Ikuskizunen kasuan, kuotak ekitaldi bakarrean sortuta datozenean, sortzapena ekitaldi bakoitzean egitetik dator, dagozkien deklarazioak arauz ezartzen den eran aurkeztu behar izango direlarik.

VIII. KUDEAKETA

12. Artikulua.

1.- Zerga honen kudeaketa, likidazio, ikuskapen bilketarako eskemenak, borondatezko epea zein premiamendu bidezkoan, Laudio udalerraren esparru barruan Audioko Udala administrazioa dagozkio.

2.- Hala ber, udal administrazioaren egitekoa izango da zergako errolda eta matrikula jendaurrean erakustea, aurkeztuko zaizkion erreklamazio eta errekursoak ebaztea, zergaren kobrantza burutzea, salbuespenak eta onura edo hobariak aplikatzea, hala nola zergadunari laguntza eskaini eta argibideak emateari dagozkion jarduera eta egiteko guztiak, erreziboen prestakuntza eta libramendua barru.

3.- Laudio Udala lankidetzan arituko da Arabako Foru Aldundiarekin zergaren menpeko zergadunen errolda edo matrikula prestatu eta mantentze lanetan, zein ekonomi jardueren kalifikazioan, kuoten ezarpenean eta gainerako eskumenetan.


4.- Salbuespenak eta hobariak ematen edo ukatzen direnean, ematen duen ebazpena Foru Aldundiari helarazi beharko zaio.

13. Artikulua.

1.- Zerga bere matrikularen bidez kudeatuko da. Matrikula urtero sortuko da Laudio udalerriko eremu barrurako eta ekonomi jarduerak, subjektu pasiboak, zerga zorrak eta, hala denean, foru errekarua azaltzen duten zentsuek osatuko dute. Matrikula jendearen esku egongo da.

2.- Subjektu pasiboak behartuta daude altako dagozkien aitopenak aurkezten, Zerga Ordenantza honetako 13.1 Artikuluko terminoetan eta araudiz xedatuko den epearen barruan, matrikulan sartu ahal izateko beharrezkoak diren elementu guztiak adierazita. Ondoren, agintea duen Administrazioak dagozkion kitapena praktikatu du eta kitapen hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, eta honek dagozkion zenbatekoaren ordainketa egin beharko du. Edu berean, subjektu pasiboak obligatuta dagoz jakinarazten administrazioari

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (eusquera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 9 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udalak. Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udalak. Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

zergapekoak diren jardueren burutzapenean gerta daitezkeen ordena fisiko, ekonomiko edo juridikoaren arloko aldaketek eta garrantzia izan dezaketena zerga honen ondoretarako eta hori formalizatu beharko dute araudiz zehaztutako epe eta terminoen barruan. Gai horretaz, komunikazio horietan beren beregi jasota geratu beharko da, nahitaez, aipatutako jarduerak burutzen diren higiezinak duten katastroko erreferentzia.

Partikularki, Zerga agindu honetako 6. artikuluko 1. idatzi-zatiko c) hizkian aurreikusitako salbuespena aplikaziokoa ez zaien subjektu pasiboek, komunikatu egin beharko diote Arabako Foru Aldundiari eragiketen bolumena. Halaber, subjektu pasiboek komunikatu egin beharko dituzte eragiketen bolumenean gertatzen diren aldatzeak, aldatze horrek suposatzen baldin badu Zerga Ordenantza honetako 6. artikuluko 1. idatz—zatiko c) idatzi-zatian aurreikusitako salbuespenaren aplikazioa aldatzen ala ez, edo Zerga Ordenantza honetako 8. artikuluko 2.2 erregelari aurreikusitako ponderazio koefizientearen aplikazioaren ondorioetarako kontsideratu beharreko tramoan eragin beharreko aldarazpena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Diputatuak zehaztu eta xedatuko du komunikazio horiek aurkezteko edukia, epea eta forma, hala nola zein kasutan aurkeztu beharko den bide telematikoz.

3.- Zerga ikuskapenaren edo alta eta komunikazioen formalizazioen ondorioz zentsuetan datuak sartzen, kentzen edo aldatzen badira, hori administrazio egintza izango da eta, horren ondorioz, zentsua aldatuko da. Matrikulan zentsuetako arribideko daturen bat aldatzen bada, azken horiek derrigorrez zentzu berean aldatu beharko dira.

4.- Zerga hau auto-likidazio gisa eskatu ahal izango da araudi bitartez xedatuko den arauetan oinarria hartuz.

14. Artikulua.

Ekonomi jardueren kalifikazio eta kuotak finkatzeko egintzen aurka aurkeztuko diren errekurtsio eta erreklamazioak arautuko dira Arabako Zerga Foru Arau Nagusiko 152. artikulutik 163. artikulura xedatutakoaren arabera. Berraztertze errekurtsioa ebazteko organoa Arabako Foru Aldundia izango da. Erreklamazio horiek tarteratzen badira ere administrazio egintzak bururaino eramango izapidetan, izan ere, bidea ez baita etenda gelditzen.

15. Artikulua.

1.- Laudio udalerriko zergadunen zerrenda eta matrikula, Arabako Foru Aldundiak prestatu ondoren, bidaliko Laudio herriko etxera.


2.- Foru Aldundiak landutako zergadunen zerrenda herriko etxean jaso izan ondoren, jendearen esku jarriko da, argibideak emateko eta aztertzeko, 15 eguneko epean, eta eragindako edo kaltetutako zergadunek egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

16. Artikulua.

Jendaurreko erakusketa aldia eta epea amaituta eta aurkeztutako erreklamazioak ebazita, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio onarpen erabakiaren emaitza ziurtatua.

IX. AZKEN XEDAPEN


DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 10 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udalak. Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udalak. Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

Ekonomi Jardueren gaineko Zerga arautzen duen honako Ordenantza Fiskala eta jarraian doan Eranskina, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2019ko uztailearen 29 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko urriaren 17 egunean. Indarrean jarriko da 2020ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 11 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udal. Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udal. Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I


ERASKINA

EKONOMI JARDUEREN GAINENKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. LAUDIOKO KALE-IZENDEGIA

KALEA	KATEGORIA
ALBERTO ACERO	1
ALDAI PLAZA	1
ALDAIKO	2
ALDAPETA, 2	1
ALDAPETA, beste guztia	3
ALTUI	3
ANUNTZIBAI, 3	1
ANUNTZIBAI, beste guztia	3
APALOETA	2
ARABA	1
ARANTZAR	2
ARBOL MALATO	2
ARDANTZAZAR	1
ARETA	2
ARRAÑO	3
ARROLA	2
ASPALTZA	2
ASUDUI	3
ATXARTE	3
ATXETA	2
BAIA	1
BATZALARRIN	1
BATZALARRIN (Pasabidea / Pasaje)	1
BELDUI	2
BIDEBARRIETA	2
BIDENZARRETA	4
BITORIKA	2
BIZKAIA	1
BUTROE	1
CARLOS LARREA	1
DOCTOR FLEMING	1
DUBIRIZ	3

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 12 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07




Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360687 UCAEM-XWHSF-SY8MV 797A6F8166B96521D412A5E3EA1D24150B77A7AB) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=2&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

KALEA	KATEGORIA
ELEXALDE	1
ELLAKURI	3
ERKITZA	3
ERROTARI	4
ERROTAZAR	2
ESKUTXI	2
ESTACION	1
ETXEORU	3
EUSKO GUDARIEN PLAZA	1
EZKA	1
FORJARI	4
GALLARRAGA	2
GALLARREKO	2
GANEKOGORTA	2
GARDEA, 2, 4	4
GARDEA, beste guztia	3
GARDEAGOTXI	3
GARMAKA	2
GAZTELUZAR	2
GIPUZKOA	2
GOIENURI, 1, 5, 26	4
GOIENURI, beste guztia	2
GOIENURI, Bidea	3
GOIKOETXE	2
GOIKOGANE	2
GOIKOPLAZA	2
GORBEIA	2
GRANJA PLAZA	1
GRANJABIDE	1
HERRIKO PLAZA	1
IBAIZABAL	1
IKAZKIN	4
IRUKURUTZETA, 1, 2, 4, 6, 8, 10, 12, 23	4
IRUKURUTZETA, beste guztia	2
ISASI, 3	2
ISASI, beste guztia	3
ISABIDE	3
ISUSI	3
ITURRALDE	2
ITURRIAGA	2
ITURRITXU	3
IZARDUI	3
IZORIA	1

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 13 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07




Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360687 UCAEM-XWHSF-SY8MV, 797A6F8166896521D412A5E3EA1D24150B77A7AB), generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=29&idoma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

KALEA	KATEGORIA
JAVIER ZABALLA	2
JESUS GURIDI	2
JOSE ARRUE	1
JOSE MARDONES	1
JOSE MATIA, 36	4
JOSE MATIA, beste guztia	1
KADALTSO	3
KALTZAGANETA	3
KAMARAKA	2
KATUXA-IBARRA, 3, 5, 7, 9, 11, 13, 15, 17	4
KATUXA-IBARRA, beste guztia	3
KUKULLU	2
KUKUTZA	2
LAMUZA	1
LANDALUZE, 1, 2, 4, 6, 8, 10	1
LANDALUZE, beste guztia	2
LANDETA	3
LAPURDI	2
LARRAGORRI	2
LARRAZABAL, 2	4
LARRAZABAL, beste guztia	3
LARREA	3
LATORRO	3
LATORRONDO	2
LAUNTUXUGOIKOA	3
LEZEAGABIDE	3
MAESTRO ELORZA	1
MARKUARTU, 1	2
MARKUARTU, beste guztia	3
MOSTATXA	2
MOTXOTEKALE, 1, 2, 4, 5	1
MOTXOTEKALE, 3, 8, 10, 12, 14, 16	2
MOTXOTEKALE, beste guztia	3
MUNEGAZU	4
NAFARROA	2
NERBIOI	1
ODEIBAR	1
ODIAGA	3
OKETA	2
OLAKO	3
OLARTE	3
OLETA	3
OSTEGIETA	1

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (euskera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 14 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 360687 UCAEM-XWHSF-SY8MV 797A6F8166B96521D412A5E3EA1D24150B77A7AB) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalnegotza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=2&ent_id=2&idoma=1




Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

KALEA	KATEGORIA
PAGOLAR	2
PASO A NIVEL	2
PATRICIA BILBAO	1
PEREGAÑA	2
ARANTZAR POLIGONOA	4
ARZA POLIGONOA	4
INDUSTRIALDEA POLIGONOA	4
SANTA KURUTZ POLIGONOA	4
RUPERTO URQUIJO, 1, 2, 3, 4	1
RUPERTO URQUIJO, beste guztia	2
SAGASTI	3
SALDARRIAGA	3
SAN MARTIN	2
SAN ROKE, 2	1
SAN ROKE, beste guztia	2
SANTA ANA	2
SANTA KURUTZ	3
SOLOZELAI	1
TELLERIA	4
TIERRA DE AYALA	2
TORREJON	3
TXARLAZO	2
TXINDOKI	2
TXIRRIETA	3
UGARTE	2
UNTZUETA	2
URUMEA	1
VILLOSA	4
VIRGEN DEL CARMEN	1
VITORIA-GASTEIZ, 8, 15, 17, 19, 21, 23, 25	4
VITORIA-GASTEIZ, beste guztia	2
ZABALA	3
ZERAMIKA	4
ZUBEROA	2
ZUBIAUR	1
ZUBIKO-KURAJO	1
ZUMALAKARREGI	1
ZUMELTZA	3

II. AZKEN XEDAPENA

Ekonomi Jardueren gaineko Zerga arautzen duen honako Ordenantza Fiskala eta bere Eranskina, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2019ko uztailaren 29 egunean eta behin betiko izaeraz,

DOCUMENTO _ORDENANZA: 44- Ordenanza fiscal 6 (eusquera)	IDENTIFICADORES	
OTROS DATOS Código para validación: UCAEM-XWHSF-SY8MV Fecha de emisión: 21 de diciembre de 2020 a las 9:55:41 Página 15 de 15	FIRMAS El documento ha sido firmado por : 1.- Idazkaria / Secretario/a General de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 12:58 2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Ludio Udala.Firmado 18/12/2020 14:07	ESTADO FIRMADO 18/12/2020 14:07



Herriko Plaza, z/g
01400
Ludio/Llodio
(Araba)
www.ludio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

urte bereko urriaren 17 egunean. Indarrean jarriko da 2020ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Elektronikoki sinatutako dokumentua